

egunekoa

Ainhoa Ozaeta

(Gipuzkoako Batasuneko koordinatzailea)

Gerra zikina: arduradunak eta arduragabeak

Aurreko urteetan bezala, aurtengo udak ere ekarri dizkigu samin eta egoera franko larriak, zenbait iruzkin, aipamen, solasaldi, hausnarketa eta irakurketa merezi dutenak. Olaia Kastresana, Erauntzetamurgil anderearen hilketa eta bilobaren egoera larria gerra zikinaren kapitulu berri baten hasiera kualitatiboa dena, atxilotetak... gertakari anitz, ezker abertzaleko kideontzat hausnarketa berezia eskatzen dutenak.

Gatazka politiko larria dugu, estatuak Euskal Herriari eta, beraz, euskal herritar guztioi libre eta demokratikoki bizitzeko eskubidea ukatzen diguna. Arazoaren iturburua eta sortzailea estatu espainol eta frantsesak herri honi hitza eta erabakia hartzeko eskubidea ukatzean datza, euskal herritarrok ezin baititugu gure erabakiak demokratikoki eta askatasunez hartu, eta historikoki ukapen horrek erantzun armatua izan du. Gatazka politikoak ondorio larriak eta samingarriak sortu ditu urte luzez, eta, beraz, arazoaren gainditzea behar du izan eragile politiko guztion lehendabiziko eta saihestezinezko ardura eta erantzukizuna.

Ezker abertzaleak bere zilegizko helburu politikoak ditu, independentzia eta sozialismoa alegia, baina arazoaren tamainari helduz eta arduraz eta erantzukizunez jokatuz bakearen aldeko apustua egin du. Lehentasuna, bizi garen egoeraren gainditzeari begira jarria du aspalditik, gatazkaren konponbiderako proposamena mahai gainean eragile guztiei jarritz. Ezker abertzaleak, beraz, jarria du bakerako proposamen zehatza. Benetako konponbide demokratikotik etorriko da herri honentzat bakea eta burujabetza, herritarrei hitza eta erabakia eskainiz. Zer proposatzen dute, aldiz, gainontzeko eragile politikoek? Orain arte ikusi, entzun eta bizi dugunaren arabera, soilik errepresio poliziala, bai estatutik bai estatuaren interesetara makurtzen ari den

PNVren aldetik, irtenbide polizialaren aldeko apustua eginez.

Donostiako gertakariak, berriz, are larriagoa den ondorio batera garamatza, alegia, estatuak ezker abertzalearen likidazio fisiko eta politikoa bilatzen duela, horretarako gerra zikinaren estrategia hiltzailea berriro ere berpiztuz eta estrategia errepresiboaren ondorioz ezker abertzalearen praktika politikoa kriminalizatu eta deslegitimatuz.

Errepresio poliziala gatazkaren gainditzeko inefikaza, agortua eta alferrekoa dela eragile ia guztiek eta herritar gehienek garbi ikusten badute ere, estatuak eta bere kolaboratzaileek bide horri eusten diote; horrek konfliktua luzatzea dakar eta, beraz, samina luzatzea. Hori da, beraz, estatuak eta alderdi politiko kolaboratzaileek herriari eskaintzen diotena: sufrimendua luzatzea, ardura eta erantzukizun politikoak alboratuz eta herri honi irtenbide demokratiko bat ukatuz. Ez hori soilik, berriro ere ezker abertzalearen anikilazio fisikoa berpiztu dute estatuak estoldetako estrategiek, aurrera begira jarraipena izan dezakeen ongi planifikatu eta diseinatutako guda zikina, hori guztia PNVren babes eta adostasunarekin.

Gerra zikinaren ondorio larria eta estatuaren aldetik bere estrategia errepresiboan jauzi kualitatibo gordinaste honetan bertan ezagutu dugu. Donostian gertaturikoa ezin da ekintza bakan gisa ulertu, diseinatu eta planifikatutako strategiaren barruan kokatzen da, eta horrek aurrera begira gerta daitezkeen antzeko ekintzekiko arreta eskatzen digu.

Ez da errealitate berria ezker abertzaleko kideontzat, ez dira aspaldikoak eta ezagunak ditugu GAL siglak, estatuak sorturiko indar paramilitar faxista, hiltzaile honen praktikak utzitako ondorioak, hainbat militanten erailketak eraginez, Lasa eta Zabalen erailketaren inguruko urteetako isiltasuna, Artxanda eta Muskizko kasuak, ezker

abertzaleko militanteen aurkako kotxe erreketak, gure elkarte eta *herrikoen* aurkako erasoak eta beste argitu gabeko horrenbeste ekintza. Horiek guztiak, estatuak estoldetan diseinatutako ekintzak, gatazka honen kapitulu ilun eta beltzen zerrendan sartu behar dira.

Estatuak gerra zikinaren aldeko apustu garbia egin du, eta horren aurrean ezker abertzaleak erantzuleak garbiki izendatzen ditu, PP, PSOE eta PNV. Galde dezala PNVk azken boladan gustu handiz eta hain sarritan Madrilera egiten dituen bidaietan nortzuk diren gertakari horien guztien arduradunak. Aurrez aurre izaten dituzte eta, bere garaian bezala, PSOE GAL sortu zuenean eta hala ere haiekin Gasteizko Gobernuan elkarrekin lanean aritu, orain ere, arduradunei erantzukizuna eskatu, salaketa eta aurre egin beharrean, haien aginduetara makurtzen dira, jakinik Estatu espainiarra dela zuzen-zuzenean gerra zikinaren eragilea. Presio politiko eta mediatikoei muzin egin beharrean eta benetako konponbidearen bila aritu beharrean, badirudi PNVk PPren politikarekin bat egiten duela haren morroi papera ahalik eta txukunen gauzatzeko eta, beraz, herri honi irtenbidea ukatuz. Muturrez aritzen dira, PP eta ezker abertzalea alde banatan jarritz, jakitun izanik ere PPkoek gerraren aldeko apustua egiten duten bitartean ezker abertzaleak bakerako proposamena luzatua duela. Gainera, beren burua erdigunean kokatu nahi dute, baina ezingo dituzte herritarrak engaina; izan ere, eguneroko jardunak erakusten baitu zeren aldeko apustua egiten duten, Espainiaren alde eta, beraz, gerra zikinaren alde.

Ez gara, hortaz, isilduko, arduradun eta arduragabeak izendatzen jarraituko dugu, erantzukizunak eskatzen, praktika faxista horiek salatzen eta, batez ere, horiei benetan aurre egiteko proposamenak mahai gainean jartzen. Aurrean izango gaituzte.

zutabea

Maritxu Lopepe

Batasuna kantuz

Batasun sakratua! Titulu horrekin ireki du *Sud-Ouest* egunkariak Piarres Larzabal Seaskako kolegioko aferaz ari zen artikulua. Iduri du egunkariak harriturik daudela Ziburudonibane Lohizuneko hautetsien batasuna ikusita. Segur, ez da egun guziz hola abesbatzarik entzuten ikastolen alde. Hautetsi abertzaleen kantuen entzutera ohituak balin bagara, argi da euskaltasunaren alde famatuak ez diren Poulou, Alliot Marie eta besteen bozek oihartzun berezi bat ematen diotela.

Kantua xuxena ote dea beti? Ikasten ari denari denbora pixka bat utzi behar zaio jujatu aitzin. Egia orain arte ikasle horiek ez zutela holako kantuentzat batera gusturik. Baina modak pasatzen dira eta guzietan jartzen gara azkenean...

Boz berri horiek ez dute hitzetan problema nagusirik (hau aski ongi menperatzen zutela bagenekien jadanik) eta doinuaren, edo hitzak airazteko maneran eta indarrean ere ez, iduriz.

Zaila da erratea zerk bultzaturik ikastolaren defendatzera abiatu diren hautetsiak. Euskaltzale eta abertzaleez gain bat-batean iratzartzen diren politiko gehien horiek eskuinekoak dira. Eta xuxen Ziburuko kolegioarentzat frantses gobernu ezkertiarrek dituen problemak pausatzen. Ondorioak positiboak diren utz ditzagun... Aspaldian *a capella* deika ari diren euskaltzaleei laguntza ekartzeko xedea balukete, beraz, kostaldeko tenorrek. Ahalak eta tresnak badituzte ikastolen egoeran musika sartzeko. Horri buruz abiatuak direla adierazi dute funtsean. Ez da dudarik kantari berriak ezagupen berezi baten zain daudela publikoarengatik. Ondoko hilabeteetako hitzordu nagusietan beren kantu berriak arrakasta ukan dezan nahi dukete. Eta zergatik ez aspaldi honetako *a capella*-ko kantarien publikoa berenganatuz...

Baina kasu, kantu herrikoien ematea ez da uste bezain erraza. Zintzurra karrikatuz orroaz ari denak ez du sekula irauten; barnetik hatsa hartuz zintzoki ari denak, aldiz, bai. Publikoak diferentziaren egiten badaki...

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Osasunbidea eta euskara

Angel Velez Medrano (*Nafarroako Administrazioan Euskaraz Taldeko kidea*)

Nafarroako Osasun Kontseilariak emandako Foru Aginduak salatu nahi ditugu, Osasunbidean euskararen balorazioaren atzerakada eragiten baitute. Hemendik aurrera, eremu euskaldunean euskaraz jakitea ezin izanen da puntuatu frantsesez, ingelesez edo alemanez jakitea baino % 10 gehiago. Eta eremu mistoan hizkuntza horiek baino % 5 gehiago ere ez. Eremu euskaldunean dira aldaketarik garrantzitsuenak. A mailako osasun langileon lanpostuetan % 5,66tik

%1,78ra igaro da euskararen balorazioa. Berdin famili medikuen lanpostuetan. Eremu mistoan, lanpostu horietan, % 1 puntuatzen zen. Orain puntuatu beharra desagertuta dago. Euskaldun eta euskaltzaleen erantzuna beharrezkoa da, egunetik egunerako gure zelaiko belarra moztzen ari baitira.

Agur, Txafis!

Joxin Iturrioz

Ez haut faltan botako. Azken batean bizitzak aurrera jarraitzen dik. Gaur jakin diat. Jonen eskutitza EGUNKARIAN irakurri dudu-

nean. Ez nian eskelarik ikusi. Moisesen etxera deitu diat, eta Pili kontatu zidak. Hamabost eguneko kontua. Agian hobe horrela, horetzat, behintzat. Hire inguruko entzat gogorraro izango duk. 1998ko txapelketan ezagutu gintuan. Beste aire bat zian orduko talde antolatzaileak. Hiri esker ere beste poztasun bat zian talde horrek. Hire animuak eta lagundu nahiak ez dituk ahaztekoak. Txapelketa guztiak dituk bereziak, eta 98koak ere bazian bere xarma. Eta hi tartean hintzen. Harrezkero behin edo bitan baino ez gaituk ikusi. Askorik ez. Baina oroimena hor gelditzen duk. Hainbat kontu eskertzeko! Eta beti gordetzen duk lankide-

tzarako aukera horrelako lankide zintzo eta leialekin. Egia esan, ezer nabarmenik ez, baina nola ahaztu hire animuak eta hire laguntza! Afalosteko elkarrekiko asperraldiak ere ez. Heure xumean, historia egin huen. Bihotzean ezkutuan gelditzen dena besterik ez bada. Nire bizitza ez duk aldatuko, Txafis. Beti bezala jarraituko diat. Baina hurrengo Bizkaiko Bertsolari Txapelketa datorrenean hirekin gogoratuko nauk, ezinbestean. Talde antolatzailean, ala talde antolatzaileetik kanpo. Pena ere sentituko diat gurekin egon ez izana. Bi urtean behingo zitari eusteko. Bitartean, ondo izan. Hurrengo txapelketara arte, Txafis!